

EBAZPENA, 2023ko apirilaren 25ekoa, Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendariarena, hautaketa-organoak egindako merezimenduen baloraziotik abiatutako merezimendu-lehiaketaren emaitza argitaratzea ebazten duena.

Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariaren 2022ko abenduaren 20ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera (ebazpen horren bidez, hautaketa-oinarriak eta merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdia onartzea eta argitaratzea ebatzi zen), honako hau


EBAZTEN DUT

1. Ebazpen honen eranskinean argitaratzea hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko lanpostuen behin betiko zerrenda.
2. Hautatutako pertsoneri kontratuak formalizatu ahal izateko beharrezko dokumentazioa aurkez dezaten eskatzea.
3. Lan-poltsari dagokionez, oinarrietan ezarritako gutxienekoa hautagai bakar batek ere lortzen ez duelako formalizaziorik egin behar ez dela ezartzea, eta, ondorioz, haren lanbide-profilak eskatutakoekin bat ez datozela ulertzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio Unibasqeko zuzendariaren 2022ko abenduaren 20ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera egindako merezimendu-lehiaketari.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diete Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekiko auzien jurisdikzio-organoei, bi hilabeteko epean (ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita), hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. eta 46. artikuluetan. Halaber, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Agentziari, hilabeteko epean (ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita), adierazitako 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluei jarraikiz.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 25ean.



IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA

Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zuzendaria

ERANSKINA

HAUTATUTAKO PERTSONEN ETA ESLEITU BEHARREKO LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Zbk. (*)	NAN/PASAPORTEA (4, 5, 6 eta 7 posizioak)	LANPOSTUA
1	***5108*R	Ebaluazio- teknikariaren 1. lanpostua
2	***8206*K	Ebaluazio- teknikariaren 2. lanpostua

(*) NAN/PASAPORTEAREN arabera ordenatuak: 4, 5, 6 eta 7 posizioak